

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2011ko irailaren 21a. VIII. urtea. 2.276. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

‘Nik ere lanean euskaraz’ proiektua martxan jarriko dute

Etorkinei eta familia euskaldunei zuzenduriko ekimenean izena emateko Villabonako udaletxera joan behar da, hilaren 30a baino lehen **04**

Eusebio Etxeberria Nekazaria

«Aurten leka gutxi dago, herdoilak hartu ditu eta»

Alegiako V. Nekazal Azoka hilaren 25ean, igandean, ospatuko da 11:00etan hasita **05**



I. GARCIA



Agirrezabalak Asvinenearen Poltsikoko Antzerki Lehiaketa irabazi zuen aurkeztu zen lehen urtean. HITZA

Eduarne Agirrezabala Antzezlea

«42 urterekin hasi nintzen antzerkian»

Tolosako antzerki Zikloiaren barruan, bihar, aktore oiartzuarrak emanaldia eskainiko du Orbela tabernan, 22:30etik aurrera **02**

Leitzan euskaraz eroso eta erraz ikasteko aukera eskainiko du IKAk

Leitzarren %91,3ak euskaraz ongi hitz egiten du, eta aresoarren %94,7ak; Leitzaldeko euskaltegiko arduradunak, Kontxi Zozaiak, hizkuntzaren kalitateari garrantzia eman behar zaiola azaldu du **07**



**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETI LATOKI BULABEA

24 H..

943 694 873

Edurne Agirrezabala o Antzezlea

Antzeztean, bihotzez buruz baino gehiago funtzionatzen duela dio. Telebistan ere lan egin duen arren, oholatzatik ikusleekin dagoen zuzeneko harremana maite du

«Emakumeak dira ikusle gehienak»

Itzea Urkizu

Edurne Agirrezabala (Oiartzun, 1956) 42 urterekin hasi zen antzerkiaren munduan. Gaur egun, oholatza gaineko lana beste lan batekin uztartzen duen arren, ikusleak barrez ikustean sekulako poza sentitzen duela dio. Bihar, 22:30ean, *Ogiyik karri etzun semia* emanaldia eskainiko du Zikloia egitasmoaren barruan, Or-bela tabernan.

Zeren ingurukoa izango da bihar eskainiko duzun saioa?

Ama eta seme baten arteko loturaz hitz egiten du. Guraso bezala amak semearentzat zer nahi duen, eta semeak bere aldetik zein erabaki hartzen dituen ikusten da. Finean hori da: guri, guraso bezala, seme alabentzat onena iruditzen zaigun hori, askotan seme alabentzat ez da onena izaten, eta beren bidea aukeratzeko dute. Haustura hori irudikatzen dut; gurasoek noraino iritsi behar duten eta noiz hasten den seme-alaben nortasuna.

Belaunaldi desberdinak izango dira, beraz, hizpide. Zuk, umorea egitera-koan, ikuslearen perfla kontuan izateko?

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua Tolosan. Eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jan-gela handia, sukualdea, bi auto-erentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuak deitu, 678 26 76 57 telefono zenbakira.

ten al duzu? Nola aukeratzeko dituzue gaiak?

Nire bi alabak gaztetxean zebiltzan, eta Oiartzungo festetan zer-bait egiteko eskatu zidaten gazte-ek. Emanaldia gaztetxean izango zenez, guraso bezala emanaldi hau prestatzea pentsatu nuen; gazteek beren kontuekin txundituta nola uzten gaituzten erakutsi nahi nuen. Ni ere alaba izan naiz, eta belaunaldi gazte batekoa ere bai, eta zure seme-alabek egiten dizkizuten arte, ez zara gauza horietaz konturatzeko. Nire buruari esan nion, gazteei astindutxo bat eman behar niela, baina baita gurasoei ere. Izan ere, ez ditugu beti errespetatzen bakoitzaren erabakiak, gogorrek egiten zaizkigulako.

Eszenatokiak jendeari barrea eragiten diozula ikusten duzunean, zer sentitzen duzu?

Ai... ba poz handia! Gaitasuna izango bagenu bakoitzaren arazoei barrea egiteko... Negar ere egin behar da, ordea, zeren barre-ak negarra dauka ondoan, eta bai bata eta bai bestea, oso garrantzitsuak dira. Gertatzen dena da, askoz ere hobeto ikusia dagoela barre egitea. Orduan, sekulako harrotasuna sentitzen dut jendeak barre egiten duenean. Ni antzerkian 42 urterekin hasi nintzen, orain 55 urte ditut, eta ez nuen sekula pentsatuko inorri barre eginarazteko gaitasuna izango nuenik. Hori ikusteak eta hori sentitzeak, indar handia ematen dit, oso pozik geratzen naiz, eta jendeak esaten didanez beraiek ere hala geratzen dira. Nik sortutako zer-bait jendearengana horrela iristean, oso pozik geratzen naiz.

Tolosan eskainiko duzun emanal-



OARSOBIDASOAKO HITZA

dian zu bakarrik egongo zara ohol-tzan. Aktore bati zer aporteratzen dio bakarrik antzezteak? Zailagoa al da?

Askatasun mota bat ematen dizu, inori ez baitozu erantzunik eman behar. Behin eszenatokiara aterata, ez dut bakardade hori sentitzen; bakardade hori oholatzara irten aurretik sentitzen dut, ezkutatuta nagoenean. Orduan bai dela zailagoa. Ni Lezoko Orratz antzerki taldean ere aritzen naiz, eta eszenatokiaren atzean jende gehiagorekin zain zaudenean, urduritasun hori besteekin elkarbarnatzen duzu. Bakarrik zaudenean berriz... Gainera, emanaldi honetan semea gelan dagoela irudikatzen dut. Semerik ez dagoen arren, nik gertutasun hori somatu egiten dut, eta ondo sentitzen naiz.

Asvinieneako Poltsikoko antzerki lehiaketa irabazitakoa zara. Aktoreak beti ibili behar al du hara eta hona, gauza desberdinen bila?

Alabaren lagun batek esan zidan lehiaketa hori antolatzen zutela. Neuritu egin nahi nuen, epaima-hai baten aurrean, zer nolako balorazioa ematen zidaten. Neronek egina zen antzeztan nuen guztia, eta beste iritzi batzuen beharra nuen. Horregatik aurkeztu nintzen lehiaketara. Sorpresa izan zen, lehenengoan irabazi egin bainuen. Pentsa, ze ondo! Aurten ere finalista bezala geratu naiz, eta oso garrantzitsua da. Eta egia da bai, aktoreak hara eta hona ibili behar duela. Ni, gainera, ezekkorik esaten ez dakiena naiz, eta edozein gauzetarako prest nago beti. Gainera, ez naiz neska kozkor bat, eta esaten duten bezala, arrosa pasata daukat; makarroiak pasatu aurretik, edo zer gauzetarako apuntatzen naiz. Eta nolatan hasi zinen antzerkigintza?

42 urtera arte banuen nahikoa

ama izaten eta lan egiten. Alabek 13 eta 15 urte bete zituzten, eta ez zuten hainbeste beharrik, ni beraien ondoan egoteko. Denbora librean banuela ikusi nuen, eta antzerkian izena ematea pentsatu nuen. Donostiako antzerki tailerretan hasi nintzen, hiru urteko ikasketak egiteko. Geroztik, hementxe nabil.

Telebistan ere lan egin izan duzu. Aktore batentzako bi mundu desberdin al dira?

Bai, oso desberdina da. Nik antzerkia nahiago dut, baina egia da, behin telebistan aterata, mundu guztiak ezagutzen zaituela; beste puntu bat ematen du horrek. Niri dena gustatzen zait, baina beste xarma bat du antzerkiak. Telebista hotzagoa da, eta seguraski zailagoa ere bai, askoz ere gauza gehiago adierazi behar baitira mugimendu txikiagoen bidez. Antzerkia, berriz, beroagoa eta zuzenagoa da.

Bakarrik etak erdaraz entzutera ohiuak gauda. Nola eragiten dio aktoreari euskaraz lan egiteak? Txistak modu berean kontatu behar al dira?

Ba ez dakit, nik egin izan dudana guztia euskarazkoa izan baita. Gainera, nik ez dut ezer sortu. Obra honetan, adibidez, pasadizoia gehienak, nik bizi izandakoak dira. Idazteko beharra ere, duela hamar urte sentitu nuen, eta beraz, ez dut teknika berezirik erabiltzen eta nire obrak ez dira borbilak izango.

Keinuek garrantzia handia al dute?

Bai, hori bai. Tristura, poza, harrotasuna, eta abar transmititu nahi duzunean, teknika jakin batzuk badira. Hala ere, ni nahiko organikoa naiz, eta gauzak etortzen zaizkidan bezala botatzen ditut. Gehiago funtzionatzen dut bihotzez, buruz baino, eta sentitzen dudana adierazten dut.

Beti esan izan da antzerkia krisian

dagoela. Euskarazko antzerkia, eta antzerkia, oro har, nola ikusten duzu gauregun?

Krisialdian, esan bezala. Krisi garai honekin gauza asko saihesten ari dira, eta askotan iruditzen zait lehenengo kentzen dutena, lehen ere nahiko hankamotz dagoena dela. Egoera arraroan gaude antzerkian, eta ez dakit hemendik aurrera noruntz joango den hau. Politikoki ere aldaketak izan dira, eta ea horrela gurea denari eusten diogun, kulturari orokorrean. Eguneko gazteek antzerkia kontsumitzen al dute? Zein ikusle mota da nagusi?

Lekuaren arabera oso desberdina izaten da. Adibidez, bihar taberna batean izango da, eta pentsatzen dut gehienak gazteak izango direla. Herri txikietan, berriz, belaunaldi guztiak etortzen dira: bilobak, gurasoak eta aiton-amonak. Emakumearen egunaren harira ere, emanaldi asko izaten ditut, eta saio hauetan gehienak emakumeak izaten dira. Era berean, tabernan, herri txikietan nahiz antzokietan, antzerki mundura gehien hurbiltzen dena emakumea izaten da. Joaten diren gizonezkoek oso ongi pasatzen dute, baina ez dira hainbeste animatzen, eta lastima da.

Zikloia bezalako egitasmoek antzerkia bera ikuslearengana eramaten dute, ikusleak antzokira joan beharrean. Jendeak antzerkia ikustea erazten al du horrek?

Baietz uste dut. Beti dago espresuki antzerkia ikustera etortzen den jendea, eta baita tabernan us-tekabean harrapatzen dituzunak ere; ikusten geratzen dira. Ikusle-ei heltzeko modu bat da. Ez dira herri asko, horrelako gauzak egiten dituztenak, baina Tolosaz gain, ari dira beste leku batzuetan ere. Beran, urte askotan izan naiz, eta Ondarrun ere ari dira antzerkia bultzatzen. Ongi deritot.

MENDI-ALDE
Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jantzerak...
Jatetxea
San Esteban auzoa. 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Irudia ◉ Villabona**AIZKARDIKOAK PIRINIOETAN**

Villabonako Aizkardi mendi taldeko kideek Pirinioetan igaro dute asteburua. Bi ibilbi-de egin dituzte, eta gaua Respomusoko aterpetxean igaro dute. 40 lagun elkartu ziren asteburuan, eta argazkian ikusten den Facha (3.005m) mendia igotzeko aukera edukitu zuten larunbatean. Igandean Frondiellas (3.070m) igo zuten, Plan d'asten amaitzeko. HITZA

Irudia ◉ Anoeta**GAZTETXETIK ERNIORAKO ITZULIA**

Iraileko igandaren batean Erniora joateko ohitura ez dute atzean utzi anoetarrek. Anoetako gazte asanbladak antolatuta, Erniora igo ziren Zelatunen izaten den erromeriaz goatzera. Hala ere, hirugarren igande honetan ez zen halakorik izan, eguraldiak ez baitzuen lagundu. Ea datorren igandean -azkeneko igandea- eguraldia lagun, Zelatungo erromeri eder batez goatzeko aukera izaten dugun. ANOETAKO GAZTE ASANBLADA

Isaki Lacuestaren lana ikusteko aukera egongo da bihar

Tolosako ama duen zinegilea Leidor aretoan egongo da 'La noche que no acaba' lana aurkezten, 19:15ean

A. Imaz Tolosa

Tolosako Zine Forumean Isaki Lacuestaren *La noche que no acaba* dokumentala eskainiko dute bihar, 19:15ean eta 21:00etan. Ama tolosarra duen zinegilea 19:15ean Leidorren egongo da, bere lana aurkezteko.

Lacuestak aurtengo Zinemaldian bi proiektu aurkeztu ditu: sail ofizialean *Los pasos dobles*, eta Zabaltegin, *El cuaderno de barro*. Duela bi urte, *Los condenados* lanarekin Zabaltegin Fipresci sarria jaso zuen.

Alegiatik eta Amezketatik autobusa antolatu dute Kilometroetara

Izena emateko azken eguna hilaren 29a da, helduek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta haurrek 7

A. Imaz Tolosa

Urriaren 2an ospatuko dira Kilometroak 2011, Azpeitian. Amezketatik eta Alegiatik autobusa irtengo da. Izena emateko udale-txeetara joan behar da, hilaren 29a baino lehen. Helduek hamar euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek zazpi. Autobusa Amezketatik 08:45ean irtengo da, Beartzaneko aparkalekutik. Ondoren, Alegian egingo du geldialdia, eta bertatik 09:00ak inguruan irtengo da Azpeitian ospatuko den jai handirantz.

Espainiako pistako txapelketetan Jon Irisarrik bi urrezko domina lortu ditu

Oria taldeko txirrindulariak taldekako proban brontzezko domina bat lortu du, Tafallan

Xabi San Sebastian Tolosa

Asteburu honetan Jon Irisarri tolosarrak bi urrezko domina lortu ditu Tafallan. Espainiako pistako txapelketak jokatu dira bertan, eta Oriako taldeko txirrindulariak, Euskadi ordezkatzuz, kadete mailako bi proba irabazi ditu.

Jon Irisarri abiadura eta keirin probetan nagusitu zen, eta taldekako abiadura proban brontzezko domina lortu zuen; Aritz Badiola bizkaitarrarekin eta Jon

Sanchez donostiarrarekin taldea osatuz.

Tolosar gazteak maila bikaina erakutsi zuen, eta azkarrena bera zela ere argi gelditu zen. Abiadura proban aurkari guztiak maisuki gaingitu zituen Irisarrik. Hala eta guztiz ere, kanporaketan nahiz finalean, lasterketa zailtasunekin hasi zuen.

Abiadura proba larunbatean jokatu baldin bazen, keirin proba igandean lehiatu zen. Lasterketako parekotasuna amaieran hautsi zuen Jon Irisarrik, zortzi aurkariak esprintean atzean utzi zituen.

Tafallan asteburuan jokatu diren Espainiako txapelketetan, Euskadiko taldeak emaitza bikaina lortu ditu: bost urrezko domina, zilarrezko bi eta brontzezko



Jon Irisarri txirrindularia. HITZA

sei. Gustura atera dira, beraz, euskaldunak txapelketa honetatik, domina gehien lortu dituen selekzioa izan baita.

Besterik gabe, parte hartzaile guztiei zoriontzeta besterik ez zaigu falta.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareia** du

El Brujo antzerki taldeak eskainita
Mujeres de Shakespeare
antzezlanerako

Ostirala, irailak 23 • 20:30ean Tolosako Leidorren

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira**sarrera**

TXOKOR hitza

Haur eta helduen aisirako ikastaroak

Hilaren 27an bukatuko da izena emateko epea; haur eta helduek ikastaroen artean aukera zabala dute

E. Maiz Irura

Irurako Udalak haur eta helduentzat ikastaroak antolatu ditu. Izen emate epea hilaren 27an, asteartean, 13:00etan amaituko da. Udaletxeko kultura bulegoan izen emate orria bete beharko da.

Haurrentzat, eskulanak, antzerkia, xakea, xarea eta dantza ikastaroak daude. Eskulanak ostiralean 17:30etik 19:00etara izango dira, LH1etik aurrekoentzat. Antzerkia, astearte edo ostegunetan izango da, 17:45etik, 18:45era. Xakea larunbat goizean izango da, eta xarea zehazteke dago. Guztiak 40 euro ordaindu beharko dira. Dantza ikastaroak doan izango dira. Asteazkenetan, 2 urtetik hasi eta HHkoak; eta astelehen eta asteazkenetan, LHkoak eta DBHkoak.

Helduen aukeren artean, eskulanak, egur tailerra eta antzerkia daude. Eskulanak, asteartean, 16:00etatik 17:30era; egur tailerra ostegunetan 17:00etatik 19:00etara; eta antzerkia ostegunetan,

20:15etik 21:15era. Ikastaro bakoitzaren kostua 75 eurokoa da.

Ikastaro guztiak urriaren 3ko asteen hasiko dira. Ikastaroak aurrrera ateratzeko, taldeak gutxienez sei lagunekoa izan beharko dira.

Kirola egiteko aukera

Udalarekin loturarik izan gabe, irakasle autonomoek klaseak emango dituzte Iruran. Pilates, yoga, aerobik eta mantenu gimnasia izango dira. Horrez gain, ehoziria egiteko aukera ere izango dute.

Pilates goizez edo arratsaldez izango da 09:15etik 10:15era, eta hilean 18 euro ordaindu beharko da. Eguna bileran zehaztuko da. Yoga, asteartean eta ostegunetan izango da 18:45etik 20:15era, hilean 35 euro ordainduz. Aerobika astelehen eta ostegunetan izango da goizez edo arratsaldez. 09:15etik 10:15era edo 15:30etik 16:30era izango da, hilean 24 euroren truke. Mantenu gimnasia berriz, astelehen eta ostegunetan goizez edo arratsaldez, 10:15etik 11:15era edo 16:45etik 17:45era. Ehoziria berriz, 16:00etatik 18:00era izango da astelehenetan.

Ikastaro bakoitzaren kostua, hilerio irakasleari ordaindu beharko zaio. Urrian hasi eta ekainean amaituko dira.

Agenda 21aren herri batzarra gaur izango da

2011. urtean Agenda 21ean emandako pausuen berri eman, eta ekarpenak jasotzeko izango da herri batzarra

E. Maiz Aduna

Adunako Udalak gaur 19:00etan herri batzarra egingo du kultur aretoan. 2011. urtean zehar uda-

lak Agenda 21aren prozesuan emandako pausuen berri eman eta ekarpenak jasotzeko izango da. Herriarrei batzarrean parte hartzeko deia luzatu diete.

Hiru puntu jorratuko dituzte: ekintza planaren azken urteko garapenaren berri ematea; Adunako natura eta geologiari buruzko ikerketaren emaitza nagusiak aurkeztea; eta herritarren proposamenak entzun eta eztabaidatzea izango da.

Villabonako Udala NEL proiektu pilotuan sartu da. Etxeko langileek eta familia enplegatzaile euskaldunek elkarrekin euskara ikasiko dute.

Etxeko langile etorkinek familian euskara ikasiko dute



Nora Urbizu Euskara zinegotzia eta Maite Arregi euskara zerbitzuko udal teknikaria. E. MAIZ

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

NEL, *Nik ere Euskaraz Lanean*, proiektua urrian jarriko dute martxan. Familia euskaldunetan lanean ari diren etorkinei zuzendua dago. Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzen dituztenek eman dezakete izena, eta familia enplegatzaileak ere interesa izan behar du.

Banaiz Bagara elkarteak egin du proiektua Emunen laguntzarekin. Foru Aldundiari aurkeztu eta honek onespina eman ostean, Gipuzkoa mailan aurrera ateraden proiektu pilotua da. Maite Arregi teknikariak azaldu du: «etorkin jende asko familia euskaldunen etxeetan lanean ari dira, eta euskara ikasi nahi izanez gero ere, sarritan ez dute denborarik eta ezta dirurik izaten».

Etorkinak etxean sartzean, familia askotara berarekin hizkuntza aldaketa dator. «Proiektu honen, etorkinak euskara ikasi nahi badu behintzat, familiak aukera ematen dio, eta etxean bertan ari da euskara ikasten» gaineratu du Arregik. Egitasmoaren

helburua, pertsona horiek beren lanean euskara erabiltzen ikaszea da. Aldi berean, familiak etxean hizkuntz ohiturak ez aldatzea, eta euskara ikasten laguntzea da.

Interesa duten familiak

Villabonako familia bat oso interesatua egon da proiektuarekin, eta Banaiz Bagara elkarteak bultzatuta sartu da udala proiektuan. Ikasten ari diren langileek asteen bi orduko klasea izango dute. Lan harremanerako behar duen komunikaziora bideratua izango da. Familiak berriz, hilean bi orduz elkartzeko dira, eta esperientziak trukatzeko dituzte. Era berean, etxean duen langileak euskara ikasi dezan erabili behar dituzten teknikak ikasiko dituzte. Klaseak oso praktikoa izango dira, eta bere lanean jarraian erabiltzeko moduko tresnak ikasiko dituzte.

Urrian hasiko dira klaseak, eta hilabete honen amaiera bitartean interesatuek izena eman dezakete. Horretarako Villabonako udaltxera joan beharko dute.

↓ NEL PROIEKTUA

EUSKARA IKASI LANEAN

- **Iraupena.** Urrian hasi eta urtarila bitartean izango da. 32 eskola ordu eta 8 tutoretza ordu.
- **Non.** Donostian: Laguntza Etxea (Caritas), Ategorrietako Intxaurren kalea, 30ean.
- **Prezioa.** Doakoa da. Esperientzia pilotua da.
- **Partaide kopurua.** 12 familiak eman dezakete izena, eta langileen taldea.
- **Irakasleak.** Banaiz Bagara elkarte, Emun kooperatiba.

Astelehenero etorkinek euskara ikasteko aukera dute, Gaztelekuan

Euskara ikasi edo hobetu nahi duenak, Villabonako edo Zizurkilgo udaletan izena eman dezake

E. Maiz Amasa-Villabona / Zizurkil

Iazko ikasturteetik hasita, Banaiz Bagara elkartearen bidez etorkinek euskara ikasteko aukera dute. Astelehenero Gaztelekuan elkartzen dira. Ordubeteko saioak egiten dituzte 19:45etik 20:45era. Doan da, eta ez da izenik eman behar. Etorkinez gain, euskaldun zaharrek ere bertara joateko aukera dute. Etorkinekin gai ezberdinez hitz egiteko aukera izaten da, eta euskaldunei dei egiten zaie bertan parte hartzeko.

Klaseen bidez ikasiz

Klaseetara joanez euskara ikasi edo hobetu nahi duenak hilaren 30a baino lehen eman beharko du izena Villabonako edo Zizurkilgo udaletxean. Taldea osatzuz gero herrian bertan izango lirateke klaseak. Udalek matrikularen %75a arte ordainduko dute. Laguntza jasotzeko beharrezko da: Villabonan edo Zizurkilen erroldatuta egotea; gutxienez, %85eko asistentzia izatea, matrikula ordaindua izatea eta errendimenduaren aldeko txostena izatea.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK	
P-5008	
TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com	

Eusebio Etxeberria • Nekazaria

«Tolosako jende asko bidegorritik etortzen da, eta babarrun asko erosten dute»

Imanol Garcia Alegia

Baratzea eta fruitu zuhaitzak ditu Eusebio Etxeberriak (Alegia, 1941). Gustura aritzen da, baratzea eta arbolak oso zainduta baititu. Igandean herrian egingo den V. Nekazal Azokan parte hartuko du. Lehenengo urtetik jartzen du postua Etxeberriak.

Zer produktu eramango dituzu azokara?

Babarrunak, porruak, letxugak, zerbak, kalabazinak, kiwiak... Iaz lekak eraman nituen, baina aurreten gutxi dago, herdoilak hartu ditu eta. Kalabazak eramaten ditut, baina horiek ez dira saltzen. Oso handiak dira. Postuan jartzen ditut jendeak ikusteko. Sagarrak ere ez ditut saltzen azokan, sagardotarako bidaltzen ditut. Auzoko batek egindako ogia ere izaten dut postuan.

Lehenengo urtetik parte hartzen duzu azokan.

Bai. Aurretik Kalebeherako festetan izaten zen azoka. Hara produktuak eramaten genituen, baina ez genituen saltzen. Hara bi josten ginen, eta irabazten zuenak aitzur bat jasotzen zuen saritan. Gero plazan hasi zen antolatzen azoka. Orduan saltzeko aukera eman zuten, horrek jende gehiago erakarriko zuelako.

Azoka urtean behin izaten da. Zure produktuak beste modu batera ere saltzendituzu?

Larraitz auzoan dagoen Mari-txuenea dendara eramaten ditut. Letxugak ditudanean, egunero eramaten ditut. Gero etxerako ere bai, baina barazki gutxi jaten dugu. Tomatea ontzietan sartzen dugu. Etxerako oilaskoak izaten ditut.

Zer iruditzen zaizu herrian horrelako azoka egitea?



I. GARCIA

Oso ondo. Jende ugari izaten da. Halere, ibarran ere azoka izango da igandean et ikusiko dugu zer gertatzen den. Tolosako jende asko bidegorritik etortzen da eroatera hona. Babarrun asko eramaten dute.

Eta zer esaten dute beste postuak jartzen dituztenek?

Ikaragarri gustura daude. Gotzenea baserrikoek asko ekartzen dute, adibidez. Eguerdian jende asko izaten da. Taloen postu bat ere jartzen dute.

Kultur batzordeak gonbidapena luzatu die herritarrei azokan parte hartzeko

➔ Alegiako kultur batzordeak antolatzen du Nezakal Azoka. Aurreten bosgarren aldia da eta antolatzaileek herritarrei parte hartzeko deia luzatzen diete, bai ikusle edota erosle moduan, eta baita postuak jartzen ere. Hain justu, postua jartzen interesatuta daudenak egunotan izena emateko aukera izango dute Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxean. Informazio gehiagorako 943 654 698 zenbakira deitu daiteke.

Alegiako V. Nekazal Azoka datorren igandean izango da, hilaren 25ean, herriko plazan. 11:00etatik 14:00etara egongo da irekita eta bertan abereak ikusteko, Alegia bertako barazkiak erosteko eta taloak, hamaiketako eta abar dastatzeko aukera izango da.

Irudia • Bidegoian

KONTU KONTARI

Ipuin kontaketa saioa izan zuten haurrek, atzo, Bidegoiango kultur astearen barruan. Herri zentroan elkartu ziren eta gustura aritu ziren istorioak entzuten. Foru Aldundiko *Gipuzkoa Mendiz mendi, mende mende* autobusa ere herrian izan zen. Hurrengo ekitaldia bihar, osteguna, izango da. *Interneten arriskuak* izeneko hitzaldia 21:00etan hasiko da balio anitzeko zentroan. I. GARCIA

Leire Olaberriak 26. egin du Munduko Txapelketan

Judith Arndt izan da irabazlea, eta txirrindulari ikaztegiatarra 2:46ra helmugaratu da

I. Garcia Ikaztegieta

Leire Olaberria txirrindulari ikaztegiatarra 26. amaitu du Danimarkan jokatu den erlojuaren kontrako Munduko Txapelketa. Probara abiatu aurretik, Olaberriak esan zuen egin beharreko 27 kilometroko distantzia ez zela berretzat egokiena. Ikaztegiatarra

parte hartzaileen artean erdian amaitu du, 51 txirrindulari aritu baitira proban.

Irabazlea Judith Arndt alemaniarra izan da, faboritoetako bat. 37:07ko denbora behar izan du proba amaitzeko. Olaberriak bi minutu eta 46 segundo gehiago behar izan ditu helmugara iristeko. Zilarrezko domina Linda Melanie Villumsen zeelanderriarrrak lortu du, irabazlearengandik 22 segundotara iritsiz. Brontzezko domina iazko txapel-dunarentzat izan da, Emma Pooley ingelesa, eta 24 segundo gehiago behar izan ditu 27 kilometroko egiteko.

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun

urriaren 31 baino lehen eta jaso

artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI



hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean, azaroaren 2an, **asteburu bat zotz egingo dugu** Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.



Sindikatuak ostalaritzako hitzarmenean soldatetan KPIa+%0,75eko igoera eskatzen dute beste hainbat eskakizunen artean. R. CALVO

Sindikatuak Tolosaldeko ostalaritzako langileak ere grebara deitu dituzte

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak Gipuzkoako taberna, jatetxe, ostatu, hotel eta antzekoak ixteko deia egin dute

Lan hitzarmena 2010eko abenduan iraungi zen; 8.000 bat langileri eragiten die

Rebeka Calvo

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak greba deialdia egin dute Gipuzkoako ostalaritzan etzira-ko, hilaren 23a.

Sindikatuarekin hitz egin eta gero, badirudi grebak, batez ere, Donostian izango duela eragina.

Izan ere, greba deialdiak Zinemaldiaren azkenaurreko egunarekin egiten du bat, eta beraz, mobilizazioak ere bertan egingo dituzte, oihartzun gehiago izango dutelakoan.

Greba deialdiak taberna, hotel, jatetxe, ostatu, eta antzekoetan izango du eragina, eta honekin os-

talaritzako hitzarmena 2010. urteko abenduan iraungi zela salatu nahi dute.

Ez da kontu berria, hala eta

↓ Mobilizazioak

■ **Gaur, 11:30ean.** Elkarretartzea egingo dute Donostiako Kursaal parean.

■ **Bihar, 11:00etan.** Kotxe karabana egingo dute Donostian.

■ **Etzi, greba eguna.** 09:00etan pikete informatiboak izango dira Boulevardean, eta 11:30ean elkarretartzea egingo dute Kursaallean.

gutziz ere; hitzarmena bukatu zenetik sindikatuak eta ostalaritzako enpresariak behin baino gehiagotan bildu dira. Lehen bilerara maiatzaren 10ean izan zuten, eta ordutik zazpi bilera izan dituzte.

Azken bileran, pasa den irailaren 7an, egoera erabat blokeatu zen ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen arabera, eta horregatik erabaki zuten Zinemaldia aprobetxatuz greba deialdia egitea. Gutxi gorabehera 8.000 bat langileri eragiten die deialdiak.

Eskaerak

Sindikatuak soldatetan KPIa+%0,75eko igoera eskatzen dute,

nahiz eta hasiera batean KPIa+%2 eskatu.

Enpresariak, ordea, hiru urteko akordioa besterik ez du aurreikusten: lehen urtean KPI erdiaren igoera prosatzan dute, %75koa bigarrenorako, eta %100koa hirugarrenorako.

Era berean, sindikatuak igandeetan lan egiteagatik gehiago ordaintzea, asteen bi atsedeen egun izatea, gauean lan egiteagatik orain jasotzen duten soldata plu-

Mobilizazio guztiak Donostian izango dira Zinemaldia egiten ari direla aprobetxatuz

Ostiralean elkarretartzea egingo dute Kursaal parean, 11:30etik aurrera

sa igotzea, jai egunetan lan egiteagatik ordainsari berezia izatea, eta garraio zein antzinatean soldata plusak igotzea eskatzen dute.

Aspagiren jarrera

Gipuzkoako Ostalaritza Enpresaburuen Elkarteak, Aspagik, ordea beste ikuspegi bat du.

Hauen hitzetan, sindikatuak irailaren 28an beste bilera bat egiteko gonbita luzatu diete, baina hauek, egoera «zaildu» eta greba deialdia egitea erabaki dutela salatu dute.

Aspagiren hitzetan, ezin dituzte eskatutako soldata baldintzak onartu: «ezin ditugu soldata baldintzak ostalaritzako azpisektore bateko, ostatuak, ustezko okupazioa kontutan hartuta erabaki. Izan ere, ostatuetan lan egiten dutenen konpurua sektore guztiko %12,7a besterik ez da».

Enpresariak errestaurazioko eta edari saltokietako negozio konpurua 36 hilabeteetan jaitsi dela diote, eta ostalaritzan, nahiz eta jarduerara igo, 2006 salneurri eta fakturazio bera izan dutela esan dute. Tabakoaren legea ere ekarri dute burura, honek eragin txarra baitu sektorean, eta beraz, «kostak kontrolatu» behar dituztela nabarmendu dute.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

«Erraztasun ugari» Leitzaldeko IKA euskaltegian euskara ikasteko

Urriaren 3ra arte zabalik dago izena emateko aukera; Leitzaldeko herritarrek matrikularen erdia ordainduko dute

Iñigo Terradillos Leitza

Euskara irakasteko duten metodologia erraza eta erosoa delako nabarmentzen da Nafarroako eta Arabako zenbait euskaltegi osaturiko IKA koordinakundea. Hala dio, behintzat, bertako ikasleei eginiko galdeketa batek. Bada, koordinakundeak dituen euskaltegi guztietan —Leitzaldekoan barne— ikasturte berriko matrikula kanpaina zabalik da. Aurten ere, «euskara ikastea kapritxoia ez baina eskubidea delako» erraztasun ugari jarriko dituzte herritarren eskura.

Erraztasun horiek eskola ordutegi eta matrikulazioari lotutakoak dira. Leitzaldeko euskaltegiko arduradunak Kontxi Zozaiak azaltzen duenez «izena ematen dutenek eskatzen dutenaren arabera izaten da ordutegia». Hau da, ikasleek euren lehentasunak markatzen dituzte, eta horren arabera osatzen dituzte ordutegiak. «Baldintza bakarra astean gutxienez 6 ordu egitea da».

Bestalde, euskara ikasi nahi dutenek matrikulazioan ere badute erraztasunik. Izan ere, euskara mankomunitatea osatzen duten herritarrek —tartean Areso eta Leitza— matrikularen erdia baino ez dute ordaintzen, eta langabetuen kasuan doan izaten dute. «Euskara Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak laguntzen du diruz».



Kontxi Zozai Leitzaldeko euskaltegiko arduraduna. I. TERRADILLOS

↓ Zenbait datu

IKASTURTE BERRIA

- **Matrikulazio epea.** Urriaren 3ra arte dago izena emateko aukera.
- **Ordutegiak.** Ikasleen arabera zehazten dira.
- **Ikastaroak.** Maila guztiak, EGA, euskara eskakizunak, mintzapraktika, gaurkotze gramati-

kala... Internet bidez norbere etxetik ikasteko aukera ere badago.

- **Diru laguntzak.** Euskara Mankomunitateko herritarrek matrikularen erdia ordaintzen dute. Langabetuentzat doan.
- **Kontaktua.** 948 61 0776 telefono zenbakian eskura daiteke informazioa.

Eskaintza zabala

Leitzaldeko euskaltegiak ikastaroen eskaintza zabala du ikasturte berrirako. Maila guztiei zuzendutakoak daude, eta horrez gain, EGA, euskara eskakizunak eta mintzapraktika lantzeko ikastaroak dituzte. Halaber, internet bidez etxetik ikasteko aukera ere badago. Ikasturte berrian euskara ikasteari edota euskara hobetzeari ekin nahi diotenek urriaren 3ra arte dute euskaltegian izena emateko aukera.

Nafarroan laguntza txikiak

Euskaldea euskalduna da Leitzaldea. Azken datuen arabera, herritarren %5 baino ez da erdalduna, eta %3,69 ia euskalduna. Euskaldunei dagokienez, leitzarren %91,3k hitz egiten du ongi euskaraz, eta aresoarren %94,7k. Kontxi Zozaiak azpimarratzen duenez, erdalduna den portzentaia baldintzatzen du hein handi batean dagoen beharra. Horrez gain, hizkuntzaren kalitateari garrantzia eman behar zaiola dio, «batez ere gaztelaniaren eraginez maila asko gutxitu baita».

Sentsibilizatzeko kanpainak bultzatu beharko lirakeela uste du Leitzaldeko euskaltegiko arduradunak. «Gauza asko lortu dira, baina asko geratzen da egiteko euskararen egoera normalizatzeko». Zozaiaren ustez, herritarrek sentsibilizatu behar dira, baina batez ere erakundeak, duten ardurarengatik. «Erakundeetatik bultzatu beharko lirakeke ekimenak, eta eredu eman, baina Nafarroako Gobernuan ez da hori gertatzen; euskarara bideratutako diru laguntzak oso urriak dira, eta ez dira inoiz nahikoak gure kasua bezalako zerbitzuak aurrera eramateko».

 **Gutunak**

Euskal Herria Eguna: oso ongi, earra!

Arrakastatsua izan da oso Algora, Lizarra eta Ibarra herrien senidetzea. Baina egun polit hau ezinezkoa izango litzateke, herriko taldeen eta bereziki herritarren lanari esker ez balitz. Mila esker, kartela egin, jota abestu, karretera itxi, erratza pasa, bertsoa bota, turnoak egin... zituzten lagun guztiei. Eskerrik asko, Alurr, sokatira taldea, gaztetxea, Txiribitu, Sendi Ekintza, dultzainero, udala, Subegi, musika talde... egitaraua bete eta bultzatzeagatik.

Grabatu genuen lip dub-ak (jada interneten dago, ikusi!) ondo erakusten ditu egun guztian zabaldu ziren hiru sentimenduak: auzolana, herri giroa eta Euskal Herria.

Animoak ibartarrei bide berean jarraitzeko, elkarlanean, gozo gozo, denok batera ibiliz malkarrak leunduko ditugulako, eta desiozko benetako Euskal Herria Eguna gailurrera iristeko aukera gehiago izango ditugulako.

Bide batez, orain arte parte hartu ez duten herritar zein herriko beste talde eta erakundeek ateak irekita daudela jakinarazi nahi diegu, eta gurekin ttipi ttipa bidea egitera gonbidatu.

Urte guztian makina bat aukera izango dugu Lizarra, Algora eta Ibarra herri batera senidetzeak gozatzeko, anai arrebekin Euskal Herria aldarrikatzeko.

Eta hurrengo urtean, 4. Euskal Herria Eguna Algortan ospatuko da, Ibarrik baietz bi autobus! Animo!

■ **Ibarra Bai Euskal Herriari.**

Ospela aldeko baserrietako bideak garbituko dituzte larunbatean

Erredakzioa Berrobi

Auzolan eguna antolatu dute bigarren Berrobin larunbat honetarako, Ospela aldeko baserrietako (Larte, Seskea Berri, Seskea eta Usarreko) bideak garbitzeko. Udalak herritarrek animatzen ditu parte hartzera. 08:30ean egin dute hitzordua, eta bakoitzak bere materiala eman beharko du. Bestalde, iganderako Erniora mendi irteera antolatu dute Begi Gorri gaztetxeak eta udalak, eta herritar oro gonbidatu dute.

Irudia ◉ Belauntza

SAN JOSE PAPER FABRIKAKOEN ETXEA BOTA DUTE

San Jose paper fabrikako jabeen etxea izandakoa bota zuten atzo. Makine era ikusgarrian suntsitu zuten hiru solairuko etxea. Belauntzako alkate Mariano Lazkanok azaltzen duenez, etxea hutsik geratzen zenean hirugarren adinekoek zuzendutako zentro moduko bat egitea zuten buruan. «Etxea egoera onean aurkitzen zen, eta martxan jartzen hasi ginen ideia, baina azkenean oztopoak baino ez genituen topatu. Beraz, pena handiarekin, baina bota egin beharra izan dugu», R.C.





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zaintzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

AZOKA

■ **Alegia.** Hilaren 25eko
V. Nekazal Azokan parte hartu
nahi duenak aste honetan
zehar eman ahal du izena
Inaxio Begiristain kultur eta
kirol etxean.

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Udaleko lehen 100
egunetako balorazioa egiteko
herri batzar irekia izango da
gaur, 20:00etan, Topic-en.
■ **Anoeta.** Larunbatean Bilbon,
*Epaiketarik ez, zigorrik ez, esku-
bide guztiak guztiontzat* lelope-
an egingo den manifestazio na-
zionalera joateko autobusa an-
tolatu dute. Izena Itzuli
tabernan eman behar da ostiral
goiza baino lehen.
■ **Amasa-Villabona.** Billabona
futbol eskolan izena emateko
aukera dago gaur eta bihar
udal liburategian, 19:00etatik
20:00etara. Era berean,
izena eman duten haurren
guresoek bilera izango dute os-
tiralean 19:00etan, Olaederra
kiroldegian.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.
■ **Leitza.** Erbiti, O.
Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.


Agurak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● **agurak**

Irudia XIV. HITZA Argazki Lehiaketa



MENORCATIK SEVILLARA

Igor Urkiolak Menorcako argazki hau aukeratu du: «Faro baten inguru-
ruko irudia da. Ilunabar aldean, zeruaren, itsasoaren eta aintziraren
nahasketa ederra zegoen». Mila Garcia de Iturrospe, aldiz, Sevillan
izan da: «Sevillan geundela, Espainiako plaza ikustera joan eta zer
topatuko bertan eta *El dictador* filmeko errodaie! Hona hemen,
Sacha Baron Cohen aktorea, Bin Laden-en paperean!». Luis Ramon
Iglesias Zubeldiarena da azken argazkia: «A zer-nolako lana hartzen
duten batzuek! Pazientzia galanta behar da!». I.U.-M.G.-L.R.I.

**EPAIKETA
GEHIAGORIK
EZ
ZIGOR
GEHIAGORIK
EZ**

KONPONBIDE DEMOKRATIKOAK ORAIN!

**MANIFESTAZIO
NAZIONALA**

Irailak 24 larunbata BILBON
17:30tan La Casillatik abiatuta

KONTZENTRAZIOAK

Irailak 22, 19:00etan
Irureako Udaletxe plazan

Irailak 22, 19:30etan
Bilboko Arriaga plazan
Donostiako Udaletxe parean

Irailak 22, 20:00etan
Andra Mari Zuriaren plazan

Enausketa, zerbitzu berria martxan!
Enausketa, labe propietatekin.

Enausketa
Enausketa, zerbitzu berria martxan!
Enausketa, labe propietatekin.

Enausketa
Enausketa, zerbitzu berria martxan!
Enausketa, labe propietatekin.

Enausketa
Enausketa, zerbitzu berria martxan!
Enausketa, labe propietatekin.